

D. Luis Felipe Areta

Atleta pentsamolde duen apaiza

2008 Ots 11

2007ko abenduaren 27an Kirol Prentsako Gipuzkoako Elkarteak urteko kirolaririk onenaren saria Aritz Aranbururi eman zion. Ekitaldi horretan elkarteak kirol merituari deritzoten dominak banatu zituen belaunaldi ezberdinetako hiru kirolariri: Pipe Areta, Ramon Cid eta Naroa Agirre.

D. Luis Felipe Areta Filosofian eta Kazetaritzan lizentziatua da. Hogeita

hamar urtean Espainiako
errekorduna izan da Salto
Hirukoitzean, eta hiru olinpiadetan
hartu zuen parte: Erroma (1960),
Tokio (1964) eta Mexiko (1968).

**Apaiztu zinenean hedabideetako
sektore batek haizeren batek jo
zintuela zioen. Zergatik apaiztu
zinen?**

Garbi dago inor ez dela apaiz egiten
haizeren batek jota. Apaizgoa
Jaungoikoaren dohaina da, eta Berak
deituta iristen da. Lehengo txinparta
une bateko kontua izanda ere,
egiazko maitasunaren suak denbora
behar du pizteko. Apaiz izateko
deiari nire erantzuna ez zen, bada,
haizeren batek eraginda, baizik eta
ondo mamitua eta askatasun osoz
emanda.

**Opus Deien norberaren bizitzan
Jaungoikoa sartzeaz hitz egiten da.
Nola burutzen da hori
atletismoan?**

Domina olinpiko bat jokoan zenean ni ere urduri jarri arren, banekien ez nengoela bakarrik: Jaungoikoa nirekin nuen. Saioa ondo ateraz gero, eskerrak ematen nizkion, poz hori lortzen lagundu zidalako. Eta gaizki ateratzen zenean, ustekabeko hori eskaintzen saiatzen nintzen. Ez zara sorgor bihurtzen, baina urduritasuna, pozak eta nahigabeak Jaungoikoari eskain zaizkioke eta horrela zentzu berri bat irabazten dute; horra hor sekretua. Ez dago porrotik, zeure burua gainditzen laguntzen dizuten ikus-ikasiak baizik. Orduan, hurrengo proban pentsatzen hasten zara, adorerik galdu gabe, larritu gabe.

Baina gauzak gaizki ateratzen direnean, bizitza beste era batera ikusten da. Ez al duzu ezbeharririk jasan zure kirol karreran?

Noski baietz. Gogoan dut 1968an sasoirik onenean nengoela, domina

olimpikoa lortzeko zorian. Finalaren eguna iritsi zen eta beroketak egiten, eskuineko txorkatilan min arraro bat agertu zitzaidan. Ez zen arrunta, zerbait berri baizik. Mina ematen zidan, gero eta gehiago. Lehenengo saioan gaizki eta herren gelditu nintzen. Beste batzuk nire aurretik pasatzen ikusten nituen, puntuak irabazten; baina niri bukatu egin zitzaizkidan saioak, ilusioak eta olinpiadak. Hedabideek jaso zuten, ez bakarrik Aretaren porrota, baizik eta huts egin niela milioika jarraitzaileei. Une latzak izan ziren. Gero aurkitu zidaten hezurraren ezpal bat askatuta zegoela, ziztatu egiten zidana. Ebakuntza egin zidaten eta errekuperatu egin nintzen, baina dominaren aukerak alde egin zidan. Gauzak erlatibizatzeke balio zidan: garrantzitsuak direla ematen duten batzuk, azkenean ez dira hainbeste. Gero konturatu nintzen Jaungoikoak

gertaera saminak gerta dakizkigula
uzten duela, gure onerako direlako.

Ezagutu al zenuen Josemaria Escriva de Balaguer?

Bai, ezagutzeko zoria izan nuen
Erroman bizi nintzenean, 1962tik
1964ra, Erromako olinpiadarako
prestatzen ari nintzela. Benetako aita
zela egiaztatu ahal izan nuen:
gertutik segitzen zuen nire kirol
ibilaldia; izan ere, bere seme-
alabekin zerikusirik zuen guztia
aintzat hartzen zuen. Jaungoikoa
entrenamenduko pistetan eta
lehiakideekin norgehiagokan
bilatzera berotzen ninduen. Beraiei
ere eginkizun liluragarri horren
bidez Jaungoikoaren semetasunaren
miragarria agerian jartzen saiatu
behar nuela esaten zidan, eta
horrekin batera bakea eta poza.
Behin batean esan zidan: ‘Saltatzera
zoazen bakoitzean, pentsatu
Jaungoikoa irribarrez begiratzen

dizula...’. Giza egoera askotan erabil
litekeen aholku hau praktikan
jartzeak konfiantza osoz betetzen
ninduen... eta saltatzeko gogoz ere!

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/d-luis-felipe-areta/](https://opusdei.org/eu-es/article/d-luis-felipe-areta/) (2026
Mar 19)